

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Espazio komunak partekatuko dituzten hizkuntz ereduen arabera bi zentrotan banatuko da Sarrigurengo ikastetxea datorren ikasturtean

Hezkuntzak ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen eskaerei erantzun die, horrenbestez

Viernes, 11 de marzo de 2016

Hezkuntza Departamentuak Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritzari eta Eguesibarreko Udalari 2016-17 ikasturtean zentroa bi ikastetxetan banatzeko erabakia helarazi die: lehena A eta G ereduarako (gaztelaniazko hezkuntza), eta bigarrena, D eredurako (euskaraz), biek ala biek ingelesa ikasteko programekin.



Sarrigurengo ikastetxeko kanpoaldearen ikuspegia (Eguesibar).

Bi ikastetxeek era koordinatuan lan egingo dute udalerrri horretako eskola-komunitateari arreta egokia emateko, eta espazio nahiz instalazio komunak partekatuko dituzte, Sarrigurenerako berariaz prestatuko den Bizikidetzeta eta Lankidetzeta Plan batean oinarrituz.

Aurrematrikula-epean jasotako datuen arabera, berriki amaitu dena, gaztelaniako ereduarako ikastetxeak 541 ikasle izango ditu (haietatik 73, berriak) eta euskara-eredukoak, 760 (106 berriak).

Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo Hlko eskola-komunitateko eragileek (guraso-elkarteko zuzendaritza-batzordea, A eta G ereduarako "Edusarri" guraso-elkartek eta D ereduko "Denok Bat, Denok D") egindako eskaerei erantzun die, eta Eguesibarreko Udalaren nahiz "Sarriguren Hazi eta Hezi" auzo-plataformaren babesa jaso dute. Hezkuntzaren aburuz, erabaki hori "eskola-komunitatearen proposamenarekin bat dator, pedagogia-ikuspegi batetik".

Sarrigurengo, hizkuntz erduei jarraiki Nafarroan bitan banatzen den zortzigarren ikastetxea da. Aurrez, honako hauek gauza bera egin zuten:

- Berriozar: 2011n "Mendialdea I" (A eta G ereduarako) eta "Mendialdea II" (D) ikastetxeak sortu ziren, "Mendialdea" eskualdeko ikastetxetik abiatuz.

- Burlata: 1995ean sortu zen "Ermitaberri" ikastetxea, D eredurako,

"Hilarión Eslava" ikastetxea bitan banatuz.

- Atarrabia: 2003an sortu zen "Atargi" ikastetxea, "Lorenzo Goicoa" bitan banatuz.

- Iruña: 1995ean sortu zen "Biurdana" institutua, "Navarro Villoslada" BHIren banantze modura; 1997 an, beste institutu bat sortu zen D eredurako, "Eunate", Txantreako "Moret Irubide Aita" institututik bananduta; eta 2001ean, "Patxi Larrainzar" ikastetxea sortu zen "Ave María" bitan banatuta, Arrotxapea auzoan.

- Zizur Nagusia: 2000. urtean sortu zen "Erreniega" ikastetxea, egungo "Camino de Santiago" ikastetxea bitan banatuta.